



berria

Asteartea
2007ko azaroaren 20a

AEBetako Timealdizkariak portada eskaini zion Pedro Arruperi, 1973an, Jesusen Konpainiako buru zenean. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Begirada misteriotsua

ZUBEROA ITURBURU
Bilbo

Ehun urte bete dira Pedro Arrupe apaiza jaio zenetik. Bilboko Arte Ederretako Museoa, haren bizitzari buruzko erakusketa jaso du, *Arrupen begirada* izenburupean. Haren nortasuna eta ikuspegia islatzen duten argazkiek osatzen dute, eta abenduaren 16a arte bisita daiteke.

Pedro Arrupe Jesusen Konpainiaren buru izan zen 1965 eta 1983 artean. Baina, argazkilarien artean, ez zen horregatik bakarrik ezaguna. Haren begiradak piztu zuen interesa. Argazkilariak, begirada sarkor eta misteriotsu hura harrapatzen eta islatzen saiatu ziren. Horregatik, era-

Pedro Arruperi buruzko argazki erakusketa jarri dute Bilboko Arte Ederretako Museoa. Apaiza Jesusen buru izan zen 18 urtez.



Pedro Arrupe mundu osoan ibili zen, argazkian ume bati zapatak garbitzen dabil. BERRIA

kusketan jaso dituzten irudiek, kalitate artistiko eta informatibo handia daukatela uste dute antolatzaileek.

Guztira, 87 argazki ikus daitezke, zuri-beltzean gehienak. Arruperen bizitzaren hainbat pasarte erakusten dute irudiok. Horiek biltzeko, artxibo publiko zein pribatueta jo dute. Zehazki, Erromako kuriak, nazioarteko agentziek, eta Arrupe eta Gondra sendiek utzi dizkiete.

Irudiei laguntzeko, testu txikiak jarri dituzte. Apaizaren bizitza denbora laburrean ezagutzeko aukera eskaintzen dute.

Bilbokoa, ordea, erakusketa ibiltari baten hasiera besterik ez da izango, datorren urtean, herriz herri eta aretoz areto ibiliko baitira argazkiak.

Erakusketa hori, Arruperen jaiozaren mendeurrena ospatzeko ekimenen barruan kokatu dute. Jesusen Konpainiak hitzaldiak, Arrupe Etxeko beste erakusketa, eta Gontzal Mendibilek zuzendutako musikala antolatu ditu, azken asteetan, mendeurrena ospatzeko. Apaizaren pentsaera eta bizitzara hurbiltzen saiatu dira, *Munduaren alde baikorra ikusten erakutsi zigun* lelopean.

MUNDU OSOAN BARRENA. Bilboko Pilota kalean jaio zen Pedro Arrupe, 1907ko azaroaren 14an. Medikuntza ikasi zuen hainbat urtez, eta Severo Ochoa Nobel Saridunaren ikasle izan zen. Baina ikasketak utzi zituen, Jesusen Konpainian sartzeko.

Bizitza berrira egokituta, mundu osoan zehar ibili zen urte askotan. AEBetan, presoekin lanean aritu zen. Gero, Japonian bizi izan zen eta, han, Hiroshimako bonba atomikoaren leherketaren lekuko izan zen, 1945ean. Hari buruzko liburu bat ere idatzi zuen.

Hainbat urtere ondoren, 1965ean, Jesusen Konpainiako jeneral aukeratu zuten. Kargu hori bete duen bigarren euskal herritarra izan da Arrupe, Ignazio Loiolakoaren ondoren. 18 urtez bete zuen lan hura, 1983 arte. Eliza katolikoaren berritzean parte hartu zuen tarte hartan. 1981ean, hemiplegia bat jasan zuen, eta lana utzi behar izan zuen. 1991n hil zen Erroman, hamar urtean ohetik mugitu ezinik egon ondoren.